



eskola eta familiaren frakasoak

Aitor Etxeberria

ARAZOAREN EGOERA

Harrigarria da gure eskoletan eta gure gizartean eskola-frakasoak duen oihartzun eskasa. Eskolari buruz hitz egiten denean, eta gai kezkgarrien artean, gaur egun askotan ordenagailuen gaia azaltzen digute, eta gure haurrek nahitazkoa izango dutela informatika mundua menperatzea, XXI. mendeko analfabetoak izan nahi ez badute. Bestetan hirugarren hizkuntz baten beharra (frantse-
sa edo ingelesa) oinarritzotzat jotzen dute, batez ere ingelesa ez dakiena galduta ibiliko omen delako Europa berri honetan. Edota teknologia berriak ezagutu eta menperatu beharra saltzen digute, gure gizarteak ezinbestekoak dituela aurreratu nahi badu alegia.

Ez noa gauza guzti hauen garrantzia ukatzera, inolaz ere. Baina, horien aurretik, oinarrian, gure ikasleen funtsezko ikasketak daude. Betidanik landu eta jorratu direnak: irakurketa, idazketa eta kalkulua, hauek baitira beste ikasketa guztien zimenduak. Nola ikasi informatika ondo idazten ez dakienak, edo tekladoa menperatzen ez duenak idaz-makina batean?. Zertarako ingeles klaseak euskara edo gaztelania ondo menderatzen ez direnean?. Zein helbururekin irakatsiko dira teknologia berriak, teknologia "zaharrak" dominatzen ez direnean?.

Eskola berritzeaz hitz egiten zaigunean badirudi arlo berrietaz hitz egitera behar-
tuak gaudela. Baina gure eskoletan dagoen arazo latzena, eskola mota guztietan hedatuta dagoena, eta azkeneko 20 urte hauetan, estatistikak egiten edo aurkezten hasi zirenetik, era iraunkor batez azaltzen zaiguna, ESKOLA-FRAKASOA da. Oinarritzko Heziketan % 30-40koa izaten da, eta Irakas-kuntza Ertainetan % 40-50koa. Honekin adierazten zaiguna zera da, ia ikaslegoaren erdia ez dela bere etaparen bukaerara egoera onean iristen; eskolatik baztertua izango dela alegia.

Zergatik ez gara arazo honetaz benetan kezkatzen, irtenbideak plazaratzen saiatuz?. Zergatik ez dira kanpainak antolatzen gaia aztertu eta soluziobideak eskaintzeko, ingurugiroa, osasuna, kontsumismoa eta abarri buruz egiten den bezala?. Erantzuna, nire iritziz, bi aldetatik dator; nekea, ezinta-



sun, edota gure gizartearen hipokresi sozia-
la. Badirudi gure artean onartuta dagoela
ikasle guztiak ez direla gauza ikasketak
gainditzeko, eta ahalmen handiak dituzten-
ak pasatzea normaltzat hartzen dugula.
Meritoen arabera landuko litzateke etorki-
zuna, alegia, adimen ona edo lanerako ohitu-
rak eta ahalmen onak dituztenek tituluak
lortuko lituzkete; alderantziz, adimen eska-
sakoek edo lanerako balio ez dutenek edo
saiatzen ez direnek Eskola Graduatuaren
hesia gainditzeke geratuko lirateke.

IKASLEAK ERRUDUN ?.

Nola azaldu gure ikaslegoaren erdia
eskolan ezartzen diren mailak gainditzeko
gauza ez izatea?. Ia egunero, aldizkarietan,
hitzaldietan, eta zenbait liburu espezialdue-
tan frakasoaren aurrean zer egin aurkezten

zaigu. Gehienetan, ikasleei leporatzen zaie
erantzunkizuna, arreta nola landu, ikaste-
teknikak nola sakondu, e.a. Ikasleen ikuspe-
gi soiletik aztertzen da arazoa, beste ikuspe-
girik ez balego bezala, alegia, eskola, fami-
lia, eta gizarte osoa azken batean.

Frakasoaren errudun bakarra ikaslea
balitz, gizartearen orain arteko jarrera zuze-
na izango litzateke, baina egiten diren iker-
keta gehienetan arazoaren gakoa beste leku
batean aurkitzen dela esaten zaigu. Iker-
ketek eta Erakundeek egiten dituzten azter-
ketetan, ia aho batez, zera adierazten digu-
te: delako frakaso langabezia aurkitzen
diren familiengan ematen dela maila han-
dienean, edota behe maila sozialeko ikasle-
engan. Beste aldetik, eskolaren erantzunki-
zuna ere nabari azaltzen da, programak, zer
ikasi, nola irakatsi eta nola ebaluatu eta
zailtasunak dituzten ikasleekin zer egin
oker planteatzen direlako. Zer esanik ez,
famihiak ere badu zerikusia, gurasoen jokae-
ra, ardura, laguntza eta jarraipena kolokan

azaltzen direlako frakasoak ematen den kasu askotan. Azkenik, egia esanda, ikasleen ezaugarriek ere badute bere garrantzia, jakina, adimena, atentzioa, autoestima, e.a.ek bezalaxe.


Ikaslea ez da erantzunkizun osoa duena, errudun bakarra; gizartea, eskola eta familiak badute berea, eta formula magiko baten bidez, arazoa sinplifikatuz konpondu nahi dutenek (gizarteari edo ikasleari, edo eskolari leporatuz erantzunkizun osoa) erre-alitatea deformatu egiten dute benetako argibiderik eman gabe.

FRAKASOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Orain arte esan dugunez, frakasoaren lau zutabe edo oinarri aurkitzen ditugu, eta horien artean bi oso sakon edo estrukturalak dira: **gizartearen eragina** eta **ikasle** beraren oinarritzko egoera. Gizartean aldaketak oso mantsoak dira, eta ikasle baten bizitzan zehar ia nabari ezinezkoak izan dai-

tezke. Familia pobreen etxeetan gauzak ez dira erraz aldatzen. Beste aldetik, **ikaslearen egoerak**, aldakorra izanik, baditu bere mugak, adimena, osasuna, memoria, e.a. Beste alderdiak, aldiz, aldakorrak izan daitezke, atentzioa, autoestima, lanerako ohiturak, e.a. Baina alderdirik aldakorrenak **familian eta eskolan** aurkitzen ditugu, eta bertan saiatu beharko genuke ahalegin guztiz. Etxeko egoera, jarrerak, laguntzak, e.a. hobetu daitezke; era berean eskolan egiten den lana egoki daiteke. Zein arlotan ekin dakioke era zuzenean, edo non indartu eragin nabarienak?. Dudarik gabe, gure eragina familian eta eskolan nabari daiteke zuzenago. Gizartea eta ikaslearen egoera, maila batean aldakorrak izanik, nekezago aldatzen dira.


Zer egin orduan frakasoaren aurrean?. Benetako konpromezua hartzen duten eskoletan, eta arduratzen diren familietan arazoa ez dago sinpleki azaltzerik. Frakasoaren arazoak erantzun orokor bat eskatzen du, gizartearen hobekuntza ahaztu gabe, larritasun ekonomikoak arinduz eta ikaslearen egoera pertsonala hobetuz. Erantzuna, nere ustez horrela bideratu beharko litzateke:



ESKOLAN: Irakasleek eta gurasoek erreflexionatu beharra dute, zertan ari diren eta gizartearen aurrean ematen ari diren erantzuna zuzena ala okerra den begiratzuz. Inertziaren aurrean, hainbeste urtetako frakasoaren historiaren aurrean, bere buruari galdera sakon bat eginez, erantzun etiko bat eman behar diote, jakinik arazoa pobreen artean hedatzen dela gehienbat.

Hortaz, eskolan, une batean, beste gauzak alde batera utzita, geure buruari galdetu beharko diogu zer erakutsi, nola erakutsi, nola ebaluatu eta ikasleen arteko ezberdintasunak nola tratatu, batez ere behar gehiago duten ikasleei laguntza eskainiz. Horrela ez bada, beste 20 urteren ostean, kezka berarekin esnatuko gara.

FAMILIAN: Gurasook ere badugu gure erantzunkizuna. Familia pobre ala aberatsa izan, frakasoaren atzean, askotan, gurasoen



akats nabariak azaltzen dira. Gogor esanda, klasean ikasleak frakasatzen duenean (eskolan, droga arazoetan, e.a.), gurasoek ere, maila batean, porrot egin dute. Eta gurasoen eskuetan ahalmen dexente dauzkagu. Gure ekonomi maila nekezago aldatzen da, baina denok daukagu gure seme-alabei laguntzeko aukera.

Zer egin?. Irakasleen kasuan bezala, ez dago formula magikorik, baina ondorengo puntuok kontuan harturik zailago izango da frakasoa (eskolarra nahiz bestelakoa) gure etxean plazaratzea. Konkretuki proposatzen dudana hau da: etxean giro ona landu, gure seme-alabei maitasuna eta denbora eman, askatasunean baina erantzunkizunean hezi, lagundu, lanak eta kezkak elkar bizi, beren autoestima zaindu, bere buruarekiko konfiantza bultzatu, eta azkenik, geure buruari galdetu **“Eman al diot, nere ahalegin guztiarekin, behar zuen laguntza guztia?”**.